

VITORIA  
GASTEIZ  
green capital

EKAINA  
JUNIO

2015

12.13.14

# Kalearte

VITORIA-GASTEIZko kaleko arteen nazioarteko erakustaldia  
Muestra internacional de artes de calle de VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# kalēarte

OSTIRALA 12 VIERNES

Argitatzaila / Edita:  
Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Antolatzailea / Organiza:  
Kultur Plangitzaren eta Jaien Zerbitzua / Servicio de Planificación Cultural y Fiestas

Laguntzailea / Colabora:



Euskara / Euskera:  
Udaleko Euskara Zerbitzua / Servicio Municipal de Euskera

Inprimatze-lanak / Impresión:

L.G. / D.L.:

06:30h: SALBURUA PARKEA (SALBURUA BULEBARREKO SARRERA) / PARQUE DE SALBURUA (ENTRADA BULEVAR DE SALBURUA)

**JUAN CANTIZZANI** "Enhance scapes" (Andaluzia/Andalucía)

20:00h: KALEZ KALE / ITINERANTE (EL PARRAL . EXTITXU . LA UNIÓN . RESTAURANTE VIRGEN BLANCA . BODEGÓN GORBEA, EL BODE . O'CONNOR'S IRISH PUB)

**DANTZAZ** "Dantza-pote" (Euskadi)

22:30h: FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTOIN DE LA PLAZA DE LOS FUEROS

**BANDART PRODUCTIONS** "Dancing graffiti (there's always a wall)" (Hungaria/Hungría)

23:00h: KALEZ KALEKO IKUSKIZUNA (HASIERA: SAN BIZENTE ALDAPA. BUKAERA: ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA) ESPECTÁCULO ITINERANTE (COMIENZO: CUESTA DE SAN VICENTE. FINAL: PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA)

**LES COMMANDOS PERCU + DEABRU BELTZAK** "Danbor talka / Le choc des tambours" (Frantzia-Euskadi)

**HASIERAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INAUGURAL**

00:00h: FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTOIN DE LA PLAZA DE LOS FUEROS

**BANDART PRODUCTIONS** "Dancing graffiti (there's always a wall)" (Hungaria/Hungría)

00:00h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**ANIMAL RELIGION** "Indomador" (Katalunia/Cataluña)

## LARUNBATA 13 SÁBADO

06:30h: SALBURUA PARKEA (SALBURUA BULEBARREKO SARRERA) / PARQUE DE SALBURUA (ENTRADA POR BULEVAR DE SALBURUA)

**JUAN CANTIZZANI** "Enhance scapes" (Andaluzia/Andalucía)

18:00h: FORU PLAZA/PLAZA DE LOS FUEROS

**MAINTOMANO** "Ekilibuá" (Gaztela eta Leon/Castilla y León)

18:00h: ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE

**MALGOSIA SZKANDERA** "The Bag Lady Theater" (Polonia)

18:30h: ZULUETA JAUREGIKO LORATEGIAK / JARDINES DEL PALACIO ZULUETA

**2PRINCESESBARBUDES** "Gaueko entziklopedia koxkorra" (Katalunia/Cataluña)

19:00h: FORU PLAZAKO FRONTOIA/FRONTON DE LA PLAZA DE LOS FUEROS

**CIRCORTITO** "Despistados" (Vitoria-Gasteiz)

19:30h: ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE

**MALGOSIA SZKANDERA** "The Bag Lady Theater" (Polonia)

20:30h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**OREKA STUDIO** "Entre copas" (Vitoria-Gasteiz)

21:00h: KALEZ KALE (HASIERA SAN PRUDENTZIO KALEA / ITINERANTE (SALIDA C/ SAN PRUDENCIO)

**MARKELIÑE** "Andante" (Euskadi)

21:00h: ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE

**MALGOSIA SZKANDERA** "The Bag Lady Theater" (Polonia)

21:00h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**BIOSHOCK** "LABarte" (Katalunia/Cataluña)

21:45h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**SOUL FLAVAS** "Kemen" (Vitoria-Gasteiz)

22:15h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**CIRCLE OF TRUST** "Motus" (Aragoi/Aragón)

22:30h: ESPAINIA PLAZA / PLAZA DE ESPAÑA

**LOGELA MULTIMEDIA & KUKAI** "Atera doa" (Euskadi) Especial X Aniversario KaldeArte/KaldeArteren X. Urteurrena ikuskizun berezia

22:30h: FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTON DE LA PLAZA DE LOS FUEROS

**BANDART PRODUCTIONS** "Dancing graffiti (there's always a wall)" (Hungaria/Hungría)

23:30h: FORU PLAZA/PLAZA DE LOS FUEROS

**DANTZAZ** "Txoriak (Mikel Laboaren unibertsorako bidaia)" (Euskadi)

23:30h: KALEZ KALE (HASIERA SAN PRUDENTZIO KALEA / ITINERANTE (SALIDA C/ SAN PRUDENCIO)

**MARKELIÑE** "Andante"(Euskadi)

00:00h: ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA / PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

**PAKI PAYA** "Shake, shake, shake" (Katalunia/Cataluña)

00:00h: FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTON DE LA PLAZA DE LOS FUEROS

**BANDART PRODUCTIONS** "Dancing graffiti (there's always a wall)" (Hungaria/Hungría)

00:30h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**ANIMAL RELIGION** "Indomador" (Katalunia/Cataluña)

## IGANDEA 14 DOMINGO

06:30h: SALBURUA PARKEA (SALBURUA BULEBARREKO SARRERA) / PARQUE DE SALBURUA (ENTRADA POR BULEVAR DE SALBURUA)

**JUAN CANTIZZANI** "Enhance scapes" (Andaluzia/Andalucía)

11:30h: ARKA PLAZA / PLAZA DEL ARCA

**DUDU & CIA** "El Niu" (Katalunia/Cataluña)

11:30h: FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS

**DIKOTHOMIA** "Spazi...o" (Euskadi)

12:00h: FLORIDA PARKEKO KIOSKOA / QUIOSCO DEL PARQUE DE LA FLORIDA

**BAROLOSOLO** "Ile O" (Frantzia/Francia)

12:30h: LOMA JENERALAREN PLAZA-ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA / PLAZA GENERAL LOMA-PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

**ZANGUANGO TEATRO** "Flujos" (Vitoria-Gasteiz)

12:30h: ESPAINIA PLAZA / PLAZA DE ESPAÑA

**KUKAI** "Gelajauziak" (Euskadi)

12:30h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**SOUL FLAVAS** "Kemen" (Vitoria-Gasteiz)

13:00h: FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS

**NIÑO COSTRINI** "Humanus comicus" (Argentina)

13:00h: SANTA BARBARA PLAZA / PLAZA DE SANTABÁRBARA

**CIE AQUACOUSTIQUE** "Concert'eau en do Nageur" (Frantzia/Francia)

13:00h: FRAI ZACARIAS KALEAREN ATZEALDEA – ELUR-ZULOAREN INGURUA / TRASERA FRAY ZACARÍAS-ZONA NEVERA

**PEZ LIMBO** "Almacenes La Parisienne" (Vitoria-Gasteiz)

13:15h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**CHAMELEON** "Hands down" (Erresuma Batua/Reino Unido)

17:30h: ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE

**AMEZTU PRODUKZIOAK** "Skratx" (Vitoria-Gasteiz)

18:00h: FLORIDA PARKEKO KIOSKOA / QUIOSCO DEL PARQUE DE LA FLORIDA

**BAROLOSOLO** "Ile O" (Frantzia/Francia)

18:00h: SANTA BARBARA PLAZA / PLAZA SANTA BARBARA

**CIE AQUACOUSTIQUE**

"Concert'eau en do Nageur" (Frantzia/Francia)

18:30h: FRAI ZACARIAS KALEAREN ATZEALDEA – ELUR-ZULOAREN INGURUA / TRASERA FRAY ZACARÍAS-ZONA NEVERA

**PEZ LIMBO** "Almacenes La Parisienne" (Vitoria-Gasteiz)

18:30h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**CHAMELEON** "Hands down" (Erresuma Batua/Reino Unido)

18:30h: ESPAINIA PLAZA / PLAZA DE ESPAÑA

**SERENA VIONE** "Iter" (Italia)

19:15h: ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA / PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

**PAKI PAYA** "Shake, shake, shake" (Katalunia/Cataluña)

19:15h: PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

**LASALA** "Hooked (still)" (Euskadi)

19:30h: ARKA PLAZA / PLAZA DEL ARCA

**DUDU & CIA** "El Niu" (Katalunia/Cataluña)

20:30h: FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS

**COLLECTIF MALUNES** "Sens dessus dessous" (Belgika/Bélgica)

**BUKAERA IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO DE CLAUSURA**



k

**KALEZ KALEKO IKUSKIZUNA****(Hasiera: San Bizente aldapa Bukaera: Andre Maria Zuriaren plaza)****ESPECTÁCULO ITINERANTE****(Comienzo: Cuesta de San Vicente Final: Plaza de la Virgen Blanca)**

Ostirala 12 Viernes. 23:00h

Iraupena / Duración: 60'

Mugimendua, erritmoa eta sua. Hiru hitz horiek komunak izan dituzte bi konpainia hauek, bakoitzak bere kultura eta historia berezia izanda ere. Antzekoa eta desberdina aldi berean; alde-rantziz, izan ere konfrontazio sinbolikoa energia konpartitu bilakatzen baita.

Formen estetika, sorpresaren artea, su artifizialak, gertutasuna mugimenduan: DANBOR TALKA.

Formatu eta indar handiko ikuskizuna, Europako piroteknia eta perkusio talde onenetako biren eskutik. Piroteknia ikuskizuna.

Movimiento, ritmo, fuego. Estas tres palabras han constituido una base común de las dos compañías, cada una indicativa de su cultura y su historia. La aproximación no elimina las diferencias; por el contrario: la confrontación simbólica se convierte en energía común.

Estética de las formas, arte de la sorpresa, fuegos artificiales, proximidad en movimiento: DANBOR TALKA. Espectáculo de gran formato y de gran fuerza visual con dos de las mejores formaciones de pirotecnia y percusión de Europa.

Espectáculo de pirotecnia



2

**JUAN CANTIZZANI**

"Enhance scapes (intervención en espacio público con sonido ambiental)" (Andaluzia/Andalucía)

**SALBURUKO PARKEA-PARQUE DE SALBURUA**

(Salburua bulebarreko sarrera /Entrada por Bulevar de Salburua)

Ostirala 12 Viernes. 06:30h • Larunbata 13 Sábado. 06:30h • Igandea 14 Domingo. 06:30h  
Iraupena / Duración: 60'

Enhance Scapes ikerketa proiektu bat da, inguruko soinua hiri eremua aktibatu eta aberasteko elementutzat hartzen duena. Espazio publikoan soinu interbentzioak egitean datza, egunsentian. Egunak argitzen duenean argia, energia, erritmoa... aldatu egiten dira. Espazioak berak sortzen dituen soinuak eta erraz entzun edo ezagutzeko modukoak ez diren soinuak abiapuntutzat hartuz, espazio akustiko berria sortuko dugu. Anima zaitetz eta egin iezaiozu harrera egunari zentzumen esperientzia berri bat biziz. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren laguntzarekin.

Enhance Scapes es un proyecto de investigación en torno al sonido ambiental como elemento de activación y enriquecimiento del entorno urbano. El proyecto consiste en la realización de una serie de intervenciones sonoras específicas en el espacio público, durante el momento del amanecer. El día comienza, cambian la luz, la energía, el ritmo... Partiendo de los sonidos que el propio espacio genera, así como aquellos que no son audibles o fácilmente reconocibles, crearemos un nuevo espacio acústico. Anímate a saludar el día en una nueva experiencia sensorial. Con la colaboración del Centro de Estudios Ambientales.



3

**DANTZAZ KONPAINIA**

"Dantza Pote" (Euskadi)

**TABERNAZ TABERNAKO  
IKUSKIZUN IBILTARIA  
ESPECTÁCULO ITINERANTE  
POR BARES**

Ostirala 12 Viernes. 20:00h  
Iraupena / Duración: 7'

IBILBIDEA  
RECORRIDO

1. EL PARRAL
2. EXITIXU
3. LA UNIÓN

4. RESTAURANTE VIRGEN BLANCA
5. BODEGÓN GORBEA, EL BODE
6. O'CONNOR'S IRISH PUB



Tabernaz taberna, dantza garaikideaz gozatzeko aukera izugarria da, hurbila eta konplizea. Zazpi minutuan behin, Dantza Pote pasatzen den taberna bakoitzeko giroa aldatzen du apurka, antzoki baten arreta eta kontzentrazioa lortu arte. Taberna bakoitzean, ezustean, dantzariak dantzan hasten dira, jendearekin nahasturik. Zurekin eserita izan daitezke, edo zure ondoan kokaturik... eta dantzan hasiko dira!

Una oportunidad inmejorable de gozar de la danza contemporánea, cercana y cómplice, mientras recorremos los bares y las tabernas. Cada siete minutos, el ambiente de cada una de las tabernas y lugares por los que pasa Dantza Pote va cambiando poco a poco, hasta lograr la concentración y la atención propias de un teatro.

En cada bar, de manera sorpresiva, los bailarines comienzan a bailar, mezclados entre la clientela. Pueden estar sentados contigo, o parados a tu lado..., y comienza la danza.



4

**BANDART PRODUCTIONS**

"Dancing graff ti" (Hungaria/Hungría)

**FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTÓN DE LA PLAZA DE LOS FUEROS**

Ostirala 12 Viernes. 22:30h y 00:00h  
Larunbata 13 Sábado. 22:30h y 00:00h  
Iraupena / Duración: 25'

Dantza eta zuzeneko grafiti arte digitala nahasten dituen kaleko diziplinarteko ikuskizuna, hormak agertokitzat baliatzen dituena. Era guztietako grafitiak batuz istorio ludiko bat kontatzen du: pertsonaia baten eboluzioa azaltzen du, haren jaiotzatik hasi, bizitzan aurrera egiteko borrokekin jarraitu eta barneko botere berezietan jabetzen den arte.

Espectáculo interdisciplinar de calle que se impregna en cualquier pared de la ciudad y que combina la danza con el arte digital y el graffiti en vivo. La actuación recoge todo tipo de graffitis creando una historia lúdica que sigue la evolución de un personaje desde su nacimiento, a través de su lucha, hasta que descubre sus especiales poderes internos.

Argazkia / Fotografía: Mark Loudon



5

**ANIMAL RELIGION**

"Indomador" (Katalunia/Cataluña)

**PROBINTZIA PLAZA  
PLAZA DE LA PROVINCIA**

Ostirala 12 Viernes. 00:00h  
Larunbata 13 Sábado. 00:30h  
Helduentzako ikuskizuna /  
Espectáculo para adultos  
Iraupena / Duración: 55'

Quim Girón aparece ante el público como si de un gallo humano se tratara y pone en escena un "animalario" que lleva a preguntarse al público sobre la presencia de lo humano y lo animal, lo masculino y lo femenino y la relación entre todos ellos. Cuerpos transgénicos, verticales, acrobacias sobre tacones, lucha de gallos y danzas rituales son la vía para conectar con la animalidad del ser humano. Premio Mejor Espectáculo Off TAC Valladolid 2014.

Quim Girónek gizakion barne-animalia dakar oholtzara. Oilar-gizaki gisa jendaurrean agertu eta ondorengo galderak egiten ditu: Zer da animalia eta zer gizakia? Zer da maskulinoa eta zer femeninoa? Gorputz transgenikoak, bertikalak, takoiien gainean egindako akrobaziak, oilar-jokoa, erritu-dantzak... gizakion animalia izaera Girónen gorputzaren bidez azaleratua, irudikatua.

2014an Off Ikuskizun Onenaren Saria irabazi zuen Valladolideko Tac jaialdian.



Argazkia/Fotografía: Alessia Bombacci Antic teatre



**ANTIC TEATRE**  
MUNDOAN LEHEN ESTREANATUAK



6

MAINTOMANO

"Ekilibuá" (Gaztela eta Leon / Castilla y León)

**FORU PLAZA-PLAZA DE LOS FUEROS**

Larunbata 13 Sábado. 18:00h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 50'

Ekilibuá. fr. Equilibois. Fam. Ekilibuá: expr. Termino horrek zurezko objektuen eta gizakien artean aliaturik sortutako egitura geometrikoak izendatzen ditu, konplizitate eta umorezko korrante dinamikoen bidez oreka ausartak lortzeko xedez aliatu ere. Kaleko Ikuskizun Onenaren saria 2014ko Gaztela eta Leongo Antzerki Ferian.

Ekilibuá. fr. Equilibois. Fam. Ekilibuá: expr. Término que designa el acto por el cual objetos de madera y seres humanos se alían en diferentes formaciones geométricas para conseguir audaces equilibrios por medio de corrientes dinámicas de complicidad y humor. Premio al Mejor Espectáculo de Calle en la Feria de Teatro de Castilla y León 2014.



7

MALGOSIA SZKANDERA

"The Bag Lady Theater" (Polonia)

**ETXANOBE LORATEGIAK /  
JARDINES DE ECHANOVE**

Larunbata 13 Sábado. 18:00h, 19:30h y 21:00h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 20'

Bag lady emakume bakarti baten istorioa da; gauza sinpleenak erabiliz bere mundu propioa eraikitzen du. Bakarrik, gorputz osoa baliatuz eta hitzik gabeko mundu poetiko batean murgilduta, plastikozko poltsak pertsonaia bihurtzen ditu, eta material umil horretaz eraikitako une ezberdinak ezagutarazi eta biziaraziko dizkigu, opari gisa. Bag Lady ez dago hitzik, musika, irudi, kantu eta... isiltasunaren nahasketa perfektua bakarrik. Jim Henson

Fundazioak saritutako ikuskizuna.

Bag lady es la historia de una mujer solitaria que construye su propio mundo usando los objetos más simples. Sola, utilizando todo su cuerpo, explorando el poético mundo sin palabras del silencio, cada bolsa de plástico se transforma, entre sus manos, en un personaje, y como un regalo nos hará descubrir y vivir diferentes momentos, todos contruidos con ese humilde material. No hay palabras en Bag Lady, solo una combinación perfecta de música, imágenes, canciones...y silencio. Espectáculo premiado por la Fundación Jim Henson.



8

**2PRINCESASBARBUDES**

"Gaueko entziklopedia koxkorra" (Katalunia/Cataluña)

**ZULUETA JAUREGIKO LORATEGIAK / JARDINES DEL PALACIO ZULUETA**

Larunbata 13 Sábado.18:30h  
 Jende ororentzat / Para todos los públicos  
 Euskaraz  
 Iraupena / Duración: 45'

Ametsak, mesanotxeak, asmakizunak, argitxoak, teleskopioaren bidez ikusitakoak, zapatilak, baso bat ur eta fanfarre errumaniarra baliatuko dira entziklopedia honen berri emateko. 2princesasbarbudes bikoteak jostailu-tresnekin lan egingen du, apo bizargabea lagun. Oraingo honetan, baina, hotsak areagotu eta musika konponketa batzuekin eta gure garaiko, aspaldiko, tropiko aldeko nahiz ekialdeko erritmoekin, aberastu dute ikuskizuna. Familia osoarentzako musika-ikuskizuna, clown, objektuen antzerki eta ikusizko poesia ukituekin.

Sueños, mesillas, adivinanzas, lucecitas, observaciones telescópicas, zapatillas, un vaso de agua e incluso una fanfarria rumana, todo eso servirá para presentar la enciclopedia. El dúo 2princesasbarbudes toca instrumentos de juguete, con la ayuda del sapo barbudo. En esta ocasión, han aumentado los sonidos y han enriquecido el espectáculo con nuevos arreglos, ritmos actuales, antiguos, tropicales o del este. Espectáculo musical para toda la familia, con toques de clown, teatro de objetos y poesía visual.



9

**MERCADO DE LOS FUEROS**

"Despistados" (Vitoria-Gasteiz)

**FORU PLAZAKO FRONTOIA / FRONTÓN DE LA PLAZA DE LOS FUEROS**

Larunbata 13 Sábado. 19:00h  
 Jende ororentzat / Para todos los públicos  
 Iraupena / Duración: 50'

Numero klasikoak maitasunez eta umorez oroitzen dituen ikuskizuna. Sarinik eta Dieguetek barrez leherzteko moduko bikotea osatzen dute, eta maitasuna eta lana beti ez direla ondo amaitzen erakutsiko digute, umorea, zirkua eta antzerkia baliatuz. Eguneroko bizimodua kabaret ibiltaria bihurtu dute, herriz herri dabilena magia lekurik urrunenetara eramateko. Aizto jaurtiketa, botiletan bermatutako aukien gaineko orekak, errebotoke malabareak, zuzeneko musika, aireko uztaia eta askoz ustekabe gehiago.

Ezberdinen arteko bikotea. Trapezista bat eta pailazo bat.

Un espectáculo que conmemora números clásicos con mucho amor y comicidad. Sarini y Dieguete, una pareja desopilante, nos muestran con humor, circo y teatro, que el amor y el trabajo no siempre salen bien. Su vida cotidiana se transforma en un pequeño cabaret ambulante que viaja de pueblo en pueblo llevando su magia a los rincones más ignotos. Lanzamiento de cuchillos, equilibrios en sillas sobre botellas, malabares de rebote, música en vivo, lira aérea y muchas sorpresas más... Una pareja desaparece. Un trapecista y un payaso

**MADE IN GASTEIZ**

Argazkia / Fotografía:  
 Francisco Javier Gracia Gil

10

**OREKA STUDIO**

"Entre copas" (Vitoria-Gasteiz)

**PROBINTZIA PLAZA /PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 13 Sábado. 20:30h

Iraupena / Duración: 20'

Estrenaldia KaldeArten / Estreno en KaldeArte.



11

**BIOSHOCK**

"LABarte" (Katalunia/Cataluña)

Bioshock arte taldea da, dantza, antzerkia, akrobazia eta zirkua nahasten dituena.

Ikuskizun berri honetan, Bioshockek dantza urbanoko estilo ezberdinak



12

## SOUL FLAVAS

"Kemen" (Vitoria-Gasteiz)

### PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

Larunbata 13 Sábado. 21:45h

Igandea 14 Domingo. 12:30h

Iraupena / Duración: 15'

Estrenaldia KaldeArten / Estreno en KaldeArte

Dantza urbanoko pieza hau identitateaz mintzo da, besteengandik bereizten gaituenaren eta dantzari gisa definitzen gaituenaren bilaketaz. Soul Flavasek, hain zuzen ere, energia du bereizgarri, mugimenduarekiko pasioa baita haren mundua mugitzen duen energia eragilea. Euskal kulturak eta dantza urbanoak bat egiten dute ikuskizun honetan, lau dantzarik eta bi txalapartarik jardungo baitute.

Pieza de danza urbana en la que se habla sobre la identidad, una búsqueda de lo que nos caracteriza, lo que nos diferencia del resto y nos define como bailarines. En esta creación Soul Flavas encuentra la diferencia en su energía, la pasión por el movimiento se convierte en la energía motora que mueve su mundo. La cultura vasca y la danza urbana bailan juntas en este espectáculo con cuatro bailarines y dos txalapartaris.



MADE IN  
GASTEIZ

13

## CIRCLE OF TRUST

"Motus" (Aragoi/Aragón)

### PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA

Larunbata 13 Sábado. 22:15h

Iraupena / Duración: 25'

Sei dantzarientzako breakdance eta zirku pieza, Jordi Vilasecak zuzendutakoa. Banakoaren bihotzetik abiatutarik talde bat, pertsona multzo bat mugiarazten duten eragileak aztertu nahi dituen bidaia da. Gure ametsak lortzeko ahaleginez, hobetzeko gogoaz eta lankidetzaz gogoe-ta eginaraztea da helburua. Circle of trust konpainia 2002an sortu zen, Zaragozan, eta dantza, bboyinga eta zirku arteak lantzen ditu.



Pieza de breakdance y circo para seis bailarines dirigida por Jordi Vilaseca. Un viaje que parte del corazón del individuo y nos transporta a los resortes que mueven un grupo, un círculo de personas. Una propuesta que nos hace reflexionar sobre el esfuerzo, la superación y la colaboración para conseguir nuestros sueños. Circle of trust es una compañía de danza, bboying y artes circenses creada en Zaragoza en 2002.



**KALEZ KALEKO IKUSKIZUNA (Hasiere: San Prudentzio kalea)**  
**ESPECTÁCULO ITINERANTE (Comienzo: calle San Prudencio)**

Larunbata 13 Sábado. 21:00h y 23:30h  
 Iraupena / Duración: 45'

Marea goian zegoen batean, kontatu beharreko istorioak itzuli zituen itsasoak lehorrera. Horregatik, kalea hondarrez eta zapataz beteta agertu zen. Oinezkoek harrিতa galdetzen zuten... nola heldu dira honaino? norenak dira? zer kontatu nahi digute? Andante mozorro antzerkia da eta, era poetikoan, hitzik gabe eta umore ukitu zainduarekin, ahaztu behar ez genituzkeen istorioak kontaktzen ditu. Gerra garaiko zapata anonimoen istorioak. Gureak izan daitezkeen zapatenak.

En una pleamar, el mar devolvió a la tierra historias que debían ser contadas. Por eso, la calle apareció llena de arena y de zapatos. Los paseantes se preguntan asombrados... ¿cómo han llegado hasta aquí? ¿de quién son? ¿qué quieren contarnos? Andante es teatro de máscara que narra, de forma poética, sin palabras y con un cuidado sentido del humor, historias que no deberíamos olvidar. Historias de zapatos anónimos en época de guerra. Zapatos que podrían ser los nuestros.



**ESPAINIA PLAZA/PLAZA DE ESPAÑA**

Larunbata 13 Sábado. 22:30h

Iraupena / Duración: 30'

Estrenaldia KaldeArten / Estreno en KaldeArte

Udaletxeko fatxadaren neurriira sortutako ikuski-zuna, mapping teknika (grafikoen proiektzioa hiru dimentsiotan) eta euskal dantza garaikidea batzen dituena, hain zuzen. Hamalau urteko ibilbidearen ondoren, beste arte alor batzuekin, beste dantza estilo batzuekin edo artea ulertzeko beste era batzuekin elkarlana eta trukea bultzatzen dute Kukai Dantza Taldeak eta Logela Multimediai.

Espectáculo creado a medida para la fachada de la casa consistorial que aúna la técnica del mapping (proyección de gráficos en 3D) con la danza vasca contemporánea. Tras catorce años de andadura, Kukai Dantza Taldea y Logela Multimedia continúan impulsando creaciones e interacciones con otras disciplinas artísticas, otros estilos de danza y otros modos de entender el arte.



**FORU PLAZA-PLAZA DE LOS FUEROS**

Larunbata 13 Sábado. 23:30h

Euskaraz

Iraupena / Duración: 35'

Txoriak dantza garaikidearen, irudi liluragarrien eta musikaren bidez, Mikel Laboaren unibertsoan barneratzen da: askatasuna, osasun mentala, erotasuna, bestearikiko harremanak..., Laboaren musikaren emozioarekin gure gogoa, gure erreferenteak, gure barnearekin lotuz. Lilura eta artea gureganatzeko obra. Dantzaz Konpainiaren ekoizpen berria, Mikel Laboaren musikarekin, Josu Mujikaren koreografiarekin, eta Iñaki Salvador aholkularitza musikalarekin.

Txoriak se adentra, por medio de la danza contemporánea, las imágenes sugestivas y la música en el universo de Mikel Laboa: la libertad, la cordura y la locura, las relaciones con el otro..., en un espectáculo que consigue conectar con nuestra memoria, con nuestros referentes, con nuestra alma... Emoción y arte salen a tu encuentro. Una nueva producción de Dantzaz Konpainia, con música de Mikel Laboa, coreografía de Josu Mujika, y el asesoramiento musical de Iñaki Salvador.





Bi haga, 6 metroko garaiera duen egitura bat eta... Tony! Bikote ideala aurkitu nahian, Tony Fumék boluntario gajo bat aukeratuko du bere eldarnio zoroenak gauzatu ditzan. Aireko koadroa edo haga txinatarrak, dena da posible Tody xarmagarriaren besoetan. Umorea, konplizitatea, arriskua eta emozioa. Ikuskizun harrigarria, disko musikaren erritmoan! 2012ko Mirabilia saria (Fossano, Italia), 2012ko Zirkolika saria (Bartzelona) eta 2013ko MiramirO saria (Gent, Belgika).

2 mástiles, una estructura de 6m de alto y... ¡Tony! En busca de la pareja ideal, Tony Fumé elegirá una pobre voluntaria para que haga realidad sus delirios más estrafalarios. Cuadro aéreo o mástil chino, todo es posible en los brazos del seductor Tony. Humor, complicidad, riesgo y emoción. ¡Un espectáculo sorprendente a ritmo de música disco! Premio Mirabilia 2012 (Fossano, Italia), Premio Zirkolika 2012 (Barcelona) y Premio MiramirO 2013 (Gent, Bélgica).



**ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA**  
**PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA**

Larunbata 13 Sábado. 00:00h  
lgandea 14 Domingo. 19:15h  
Iraupena / Duración: 50'



## ARCA PLAZA / PLAZA DEL ARCA

Igandea 14 Domingo. 11:30h -19:30h

Haurrentzako ikuskizuna/ Espectáculo infantil

Iraupena / Duración: 40'

izaki misteriotsu batzuk iritsi dira, maletez osatutako habia handi baten gainean. Txori arima duten pertsonaiak dira, beren xalotasunez eta zolitasunez liluratuko zaituztenak; ametsak eta musikak lagun, kalea bate-bateko agertokia bilakatzen dute, eta bizitzaz betetzen. El Niú ikuskizuna berrasmatu egiten da igarotzen den kale bakoitzetik. Hitzik eta araurik gabe, ikusleekiko jolas etengabean irudimenezko bide berriak urratuz doa, ustekabea eta barrea sorraziz. Klariona, pailazoak eta zuzeneko musika.

Unos seres enigmáticos sobre un gran nido de maletas acaban de llegar. Unos personajes con alma de pájaro que te cautivan por su ingenuidad y perspicacia, que acompañados de sueños y músicas, transforman la calle en un escenario improvisado y lleno de vida.

El Niú es un espectáculo que se inventa de nuevo por cada calle por donde pasa. Sin palabras, sin reglas, donde el juego constante con el público va dibujando nuevos caminos hacia la imaginación, donde la sorpresa y la risa cobran vida. Tiza, clown y música en directo.

## FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS


Igandea 14 Domingo. 11:30h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 50'

da, ezustekoaren xarma galdu zuen harreman klaustrofobiko baten barruko ikamikak. Hala ere, oraindik bada asmatu gabeko ipuinik. Zirku teknikak idazmakina bihurtuko ditugu. Malabareekin marraztuko dugu, gorputzarekin emozioak iradokiko: ariketa bertikalak egingo ditugu, amesteko gogo ez galtzeko; dantza eta antzerki fisikoa, kapituluak josteko; oreka akrobatikoa, irakurlerik gabe ez dagoela idazlerik gogoratzeko.

En el letargo de la convivencia, la vida transcurre sin sorpresas; nos conocemos bien, parece que todo ya está escrito... rutina y con ella los choques de una relación claustrofóbica que perdió el gusto de lo imprevisto... aún así, aún nos quedan cuentos por inventar. Las técnicas de circo se convierten en nuestra máquina de escribir. Dibujando con malabares, insinuando emociones con el cuerpo: verticales para no perder el gusto de soñar, danza y teatro físico para hilar capítulos, equilibrio acrobático para recordar que sin lectores no hay escritores.



### FLORIDA PARKEKO KIOSKOA QUIOSCO DEL PARQUE DE LA FLORIDA

Igandea 14 Domingo. 12:00h -18:00h  
Jende ororentzat / Para todos los públicos  
Iraupena / Duración: 30'

Kiosko bat beste kiosko baten ondoan. Floridakoa eta zorua urez beteta duen beste hau. Artista bikoteak oinak uretan sartu beharko ditu, edo agian ez, horixe da kontua. Horietako batek ez du inolako eragozpenik bustitzeko, eta uraren baliabide plastiko eta musikal oro baliatzen du; besteak, berriz, beldur handia dio urari, eta ahal duen guztia egingo du ez bustitzeko. Barolosolo, ororen gaitetik, zirku konpainia da, iaiotasun teknikoak, publikoarekiko harreman estua eta zuzeneko musika oinarritzat dituena. 2014an Zirku Konpainia Onenaren saria irabazi zuen Valladolideko TAC jaialdian.

Un quiosco junto a otro quiosco. El de la Florida y este otro con el suelo repleto de agua. El dúo que va a actuar tendrá que poner los pies dentro del agua o tal vez no, esta es la cuestión... Mientras uno de ellos no tiene ningún inconveniente en mojarse y utiliza todos los recursos plásticos y musicales del agua, el otro la teme más que a la peste y hace lo imposible por evitarla... Barolosolo es, ante todo, una compañía de circo: proeza técnica, relación íntima con el público y música en directo. Premio a la Mejor Compañía de Circo en el TAC de Valladolid 2014.



LOMA JENERALAREN PLAZA-ANDRE MARIA  
 ZURIAREN PLAZA / PLAZA GENERAL LOMA-  
 PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

Igande 14 Domingo. 12:30h  
 Iraupena / Duración: 60'



MADE IN  
 GASTEIZ

Konspirazio isilak, hitzik gabe elkar ulertzen dutela diruditen pertsonen artekoak; iraultza mutuak, oharkabean munduan uneoro gertatzen direnak.

Bat-batean osatzen diren taldeak, ezusteko bilerak parke baten erdian edo kantoi ilun batean, noizean behin gizateriaren etorkizuna itxaropenez ikusteko aukera ematen dituztenak. Minutu batzuk elkartu eta badoaz berri bakoitza bere aldetik, miseria moralaren kontrako borroka ezkutuan berretsita. Jolastera eta elkarri begietara so egitera gonbidatzen duen lana.

Silenciosas conspiraciones de personas que parecen entenderse sin hablar, calladas rebeliones que a cada momento tienen lugar en el mundo sin que sean percibidas. Grupos que se forman al azar, súbitas reuniones en mitad de un parque o en la oscura esquina y que nos permiten de vez en cuando ser optimistas respecto al futuro de la humanidad. Se juntan unos minutos y luego se separan, afirmándose en la soportada lucha contra la miseria moral. Una invitación al juego y a mirarnos a los ojos.

### ESPAÑIA PLAZA – PLAZA DE ESPAÑA

Igande 14 Domingo. 12:30h  
 Iraupena / Duración: 55'

Elementu berri eta berezi ugarirekin zipriztindutako proiektua aurkezten du Kukai Dantza Konpainiak. Kalea du abiapuntu, eta plaza izango du elementu guztien bilgune. Kukai Konpainiak eta Cesc Gelabert koreografo handiak herri dantzei begirada berri bat emateko batu dituzte indarrak. Haren lekuko eta zelataria da Néstor Basterretxea artista handiaren Akelarre eskultura. Izan ere, eskultura ikusgarri horren inguruan eraiki dute Gelajauziak ikuskizunaren koreografia.

Sin abandonar el lenguaje propio que ha desarrollado y evolucionado con la colaboración de artistas y coreógrafos consagrados, Kukai Dantza Konpainia vuelve con un gran espectáculo. Y lo hace de la mano de dos figuras en sus respectivas disciplinas: el coreógrafo y bailarín Cesc Gelabert y el artista plástico Néstor Basterretxea. La calle, la plaza, es el punto de encuentro. La convocatoria, junto a la escultura Akelarre, testigo mudo en torno al cual sucede Gelajauziak





**FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS**


Igandea 14 Domingo 13:00h

Jende ororentzat /

Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 45'

Berriz da hirian probokatzaile peto hau, ironia eta burla adierazpidetzat dituen, eta barrea zeregintzat. "Humanus Comicus" umore eta zirku varieté fresko eta lotsagabea da, Costriniren bufoi izaeraren alderdi guztiak biltzen dituena. Marrakzi bizidunetako pertsonaiek beren zoramena eta katramilak aske uzten dituzte, publikoari parte hartzeko aukera emanez. Sormenez eta irudimenez betetako ikuskizuna da, dibertigarria, arina eta terapeutikoa.



Vuelve a nuestra ciudad un provocador nato que hace de la ironía y el fino sarcasmo su medio de expresión y de la risa su trabajo. "Humanus Cómico" es un *variété* de humor y circo fresco y descarado donde se recopilan las personalidades más bufonescas de Costrini. Personajes de dibujos animados que desatan sus locuras y enredos junto a un público siempre presente y participativo. Divertido, ligero y terapéutico es este espectáculo lleno de creatividad e imaginación.

**SANTA BARBARA PLAZAKO ITURRIA / FUENTE DE LA PLAZA DE SANTA BÁRBARA**

Igandea 14 Domingo. 13:00h - 18:00h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 30'

Hiru musikari trebe, ur zipritez bustitako kontzertu batean. Txirula bihurtutako amas hodiak, saxofoi gisa erabilitako urretagailuak... "Aquacoustibass" tresnak ur gainean flotatzen du; "pipodouche" gailuak, kantu bitxia sortzen. Ura bera perkusio instrumentua bihurtzen da, harrigarriki melodiko eta erritmikoa. Aparteko esperientzia bat, musika, kirola eta jolasa nahasten dituena, planeta osoko laku, ibai eta itsasoetan inspiratutakoa.

Tres experimentados músicos para un concierto salpicadamente acuático. Tubos de snorkel reciclados como flautas, regaderas transformadas en saxofones. El "aquacoustibass" flota, el "pipodouche" produce un extraño canto. El agua en sí se convierte en un instrumento de percusión sorprendentemente melódico, que se reproduce con ritmo. Una experiencia única que aúna lo musical, lo deportivo y lo lúdico, y que busca su inspiración en los lagos, ríos y océanos de los cuatro rincones del planeta.



**FRAI ZACARIAS KALEAREN ATZEALDEA-  
ELUR ZULOAREN INGURUA /  
TRASERA FRAY ZACARÍAS – ZONA NEVERA**

Igandea 14 Domingo. 13:00-18:30h  
Iraupena / Duración: 60'

La Parisienne saltokian denetik aurki daiteke: janariak, mertzeria-gaiak, imitaziozko bitxiak edo solaskideak, nylon eta bakailao artean. Antzinako leku lasaia da, ardo bat edateko edo lubakian babesteko aukera ematen duena. Ausardia handizka, asmamen freskoa eta latakio erresistentzia dira bertako espezialitateak. Hitzik gabeko ikuskizuna, isiltzen ez den jendeari buruzkoa.

En los almacenes La Parisienne se puede encontrar de todo: alimentación, mercería, bisutería o entablar conversación entre nylon y bacalao. Un lugar antiguo y apacible donde tomar un vino o atrincherarse. Sus especialidades son osadía a granel, ingenio fresco y resistencia en lata. Un espectáculo sin palabras sobre gente que no se calla.



**PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA**

Igandea 14 Domingo. 13:15h – 18:30h

Iraupena / Duración: 17'

Konpainia britainiar txalotu horren pieza berria, Greenwich & Docklands International Festival and Dance Manchester jaialdiaren enkarguz sortua. Adiskidetasunean harian-harian aurrera egin ahala, alderdi asko nahasten dira batasun itxura lortu arte: konplizitatea, bitasuna, loturak askatzea edo estutzea. Chameleon kontaktuzko dantza lantzen duen bikote ahaltsua da, eta haien zigilua duen pieza honetan indarra nola erakusten dugun eta zaurgarritasuna nola kudeatzen dugun aztertzen dute.

Nueva pieza de esta aclamada compañía británica, comisionada por Greenwich & Docklands

International Festival and Dance Manchester, que explora cómo, a medida que caminamos en pareja por la cuerda floja, muchos rostros se combinan para lograr una apariencia de complicidad, pero manteniendo siempre la duplicidad del tira y afloja. Con la clara firma de Chameleon, este poderoso dúo de danza-contacto observa cómo mostramos nuestra fuerza y cómo gestionamos la vulnerabilidad.

**ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE**

Igandea 14 Domingo. 17:30h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Euskaraz

Iraupena / Duración: 50'

**MADE IN  
GASTEIZ**

Gainbehera egindako super-heroi batek bere bizitza betiko aldatuko duen misioa bete beharko du. Esku artean duen arazoa konpondu ezean, betiko eskegi beharko du kapa. Heroia, ordea, ez da oso azkarra, eta publikoaren laguntza beharko du aurrera egingo badu. Lortuko al du Skratxek mundua gainera datorción mehatxutik askatzea? David Gutiérrezen ikuskizun samur eta dibertigarria.

Un super-héroe venido a menos con una misión que cambiará su vida para siempre. Se encuentra en un punto en el que, o supera el problema que tiene entre manos, o cuelga la capa para siempre. La verdad es que no es muy avispado y para seguir adelante será necesaria la ayuda del público. ¿Conseguirá Skratx librar al mundo de la amenaza que se cierne sobre él? Un espectáculo tierno y divertido de la mano de David Gutiérrez.





**ESPAÑIA PLAZA /PLAZA DE ESPAÑA**

Igandea 14 Domingo. 18:30h  
Iraupena / Duración: 40'

Agertokian, neska bat eta burdinazko pieza ugari: horiek baliatuz forma eta espazio ezberdinak sortuko ditu, gero eta gorago daraman bidea eraikiz. Muntatze horixe da istorioaren ardatza, eta hortik abiatuz pertsonaiak fantasiaz, emozioz eta sentsazioz betetako abentura sortuko du. Claire Ducreuxek zuzendutako ikuskizuna.

En la escena hay una chica y muchas piezas de hierro que va manipulando, creando formas y espacios diferentes con la intención de construir su camino que la llevará cada vez más arriba. La historia es sencillamente un montaje que el personaje transforma en una gran aventura y en un viaje dentro de la fantasía, las emociones y las sensaciones. Espectáculo dirigido por Claire Ducreux.

**PROBINTZIA PLAZA /  
PLAZA DE LA PROVINCIA**

Igandea 14 Domingo. 19:15h  
Iraupena / Duración: 12'

Musika, mugimenduak eta interpreteen jarrera bera baliatuz, "Hooked" ikuskizunak osotasun bat egituratzen du, gizakiok beste gizaki batekin lotura afektiboa izateko dugun beharra islatzen duena, eta horrek dituen ondorioak. Koreografiaren bidez, harremanetan sortzen diren abikimendua eta mendekotasun emozionala aztertzen dira. Mugimenduaren zehaztasuna eta potentzia baliatuz, giza harreman horietako fase ezberdinetan ditugun aldarre ezberdinak islatzen dira.

Mediante elementos como la música, el tipo de movimiento o la propia actitud de los intérpretes, "Hooked" va formando un todo, un espectáculo que refleja la necesidad constante del ser humano de tener una vinculación afectiva con otro ser humano y los efectos que conlleva dicha condición. El lenguaje coreográfico investiga sobre el apego y la dependencia emocional a la que estamos expuestos en las relaciones. Sacando provecho de la precisión y la potencia del movimiento, se van reflejando los diferentes estados de ánimo por los que pasamos en las diferentes fases de las que constan tales conductas humanas.



**FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS**

Igandea 14 Domingo. 20:30h

Jende ororentzat / Para todos los públicos

Iraupena / Duración: 40'

Zatoz Sens Dessus Dessous ikus-terea eta gozatu koktel lehergarri eta liluragarri horren zoramenaz: trampoline, trapezio hegalaria eta Cyr gurpila. Lau zirku artista gaztek publikoa liluratuko dute azpikoz gora dagoen unibertso batean: airera jauzi egiten dute, lurreraino zanpatzen... haien zoroak bizi ditu. Hankaz gora dagoen zirkuia baita.

Ven a disfrutar de la locura de Sens Dessus Dessous con un cóctel explosivo y encantador de trampolín, trapezio volante y rueda cyr. Cuatro jóvenes artistas de circo que seducen al público con su loco universo al revés... se lanzan en el aire, se aplastan hasta el suelo ... les encanta la locura. Esto es un circo muy desordenado.



## INFORMAZIO GUNEA

Urrezko Zeledonen plaza  
(Postetxearen aurrean).

Ekainaren 8tik 11ra (astelehena, asteartea,  
asteazkena eta osteguna), 12:00etatik  
14:00etara eta 18:00etatik 20:30era  
Ekainaren 12tik 14ra (ostirala, larunbata eta  
igandeak) 10:00etatik 14:00etara  
eta 17:00etatik 21:00etara.

## STAND INFORMATIVO

Plaza de los Celedones de Oro  
(frente a Correos)

Del 8 al 11 de junio (lunes, martes, miércoles y  
jueves): de 12:00 a 14:00 y de 18:00 a 20:30  
Del 12 al 14 (viernes, sábado y domingo):  
de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00.



**Goza ezazue Jaialdian! Kalean ikusiko dugu elkar!**

**¡Buen Festival y nos vemos en la calle!**